



## Autodeterminazioaren alde, ekitaldi andana

**TOLOSALDEA** ▶ Jende ugari bildu zen atzo, Anoetan, Villabonan eta Tolosan antolaturiko ekintzetan

**ALDARRIA** ▶ «Euskaldunek euren naziotasuna izateko eskubidea» aldarrikatu zuten jai giroan ▶ 6

### TOLOSA ▶

#### Animazio handia atzoko azokan

Perretxiko zerrenda handia da oraindik ▶ 6

#### INAZIO GAZTAÑAGA ▶ GERRA BIZITAKOA



J. SAIZAR

«Oinez igaro nuen Espainia fronte batetik bestera»

Lau aldiz zauritu zuten Gerra Zibilean berastegierra ▶ 7



## Txotxongiloen jaialdiak zabaldu ditu bere atek

**TOLOSA** ▶ Atzo ireki zituen atek 24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiak. Kubako El Mejunje eta Madrilgo La Mar de Marionetas taldeak izan ziren, hain zuzen ere lehen eguneko antzezlanak eskaini zituztenak. Kubatarrek *Cuca Martina* —argazkian— eskaini zuten; madrildarrek, berriz, *Orfeo Y Euridice* izeneko obra

estreinatu zuten Leidorren. Gaur jarraituko du jaialdiak lau antzezlan desberdinekin. Horien artean, bi talde euskaldun izango dira; batetik, Behi bis taldea eta beraien *Rosi Erosi* antzezlan, eta bestetik, Teatro Paraiso eta *En el jardín* izeneko, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat. **MADDI SOROA** ▶ 4



jantzi  
**hitza**  
ren  
jertseak

## UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

## Matematikaren egi gordina



Umorez idatzi nahi nuen baina ez dakit gai izango naiz. Batzuetan parre egiten dugu nigar ez egitearren ala? Aurreko larunbatean, Azpeitiko Xoxoteko aterpetxean bertso-afaria izan nuen Xabier Silveirarekin. Azpeitiko bertso eskolako ikasleak entzule ofizial, eta Bilbotik as-teburua pasatzera etorritako hogeitak laguneko kuadrila, berriz, entzule alternatibo.

Berezia izan zen. Bitxia. Bidea are exotikoa-goa. Safari tour. Entzuleak goizean joan ziren. Oinez. Gu iluntzean, lau gurpilen gainean. Gora bidean ez genuen askorik hitz egin. Ahoa zabaldu orduko bidezidorreko zuloek erangindako ipurdiko minaren arrastoa atera zitekeen beldur ziurrenik.

Azpeitira bidean, ordea, etxebizitzaren prezioez hizeketan aritu ginen. Ni hipotekak itota. Silveira beste bizi filosofia batek itota. Baina biok diruaren garrantzia aluaz jabetuta. Norbere aukera da etxea erostea. Noski. Norberak ikusi behar du bere burua noraino estutu. Okupazioaz ere aritu ginen. Alokairuaz ere bai. Edozein lekuta-

tik begiratzen genuelarik ere alde txar gehiago ateratzen genituen onak baino.

Egonezina eta desadostasuna areagotzeko, honako hau esan nion nafarrari: «Aizak, bai al dakik berrogei milloiko kreditua hogeita hamar urtera ordaintzeko erabakia hartzen baduk zenbat diru den azkeneko? Alegia, hilero 1.200 euro, bider hamabi hilabete, bider hogeita hamar urte? 72 milloi pezeta (432.000 euro). Ia balioaren bikoitza!» Bihotzekoak emateko ez dut uste gehiagoren beharrik dagoenik. «Hori lapurreta da! Lotsagarria!». Behin Xabier Amurizak esan zuen gisan: «hesteak harri bihur bezikizkit hori ez bada horrela».

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO ▶

## Zein da zure jarrera etorkin adingabeen egoeraren inguruan?

Adingabe hauek bizitzeko gogoia dutelako datoz hona eta denok merezi dugu aukera bat. Ez pentsa istilu guztien atzean hauek daudela, euskaldunak ere hauek bezain txarrak edo txarraoak izan gaitezke.

▶

Hipokresia asko dago: Afrikari dena lapurto dio mendebaldeak. Orain, han ezer ez daukatelako datoz hona, adin txikikoak eta helduak. Adin txikikoak gazteak dira eta dibertitu egin nahi dute. Seguru asko ez dute jaso gure gaztetxo *bigunek* duten heziketa bera eta errespetu gutxiago diete gure gizarteak jarritako arauak: ez direlako beraien arauak. Baina soluziorik ez du; guri gustatu ala ez, etortzen segiko dute eta Tolosan ez bada beste nonbaiten, *arazoak* sortzen segiko dute: bizi egin nahi dute eta eskubidea dute hemen bizitzeko; herriak ez dira inorenak. Bertan bizi diren herritar guztienak ez bada.

ALEX ▶

Argi dago etortzeko eskubidea dutela, egoera hau herrialde aberatsek bultzatu baitute. Baina, era berean, hemengo bizimodu eta arauetara beraien moldatu behar dute, eta ez guk beraien arauak onartu. Hona etorritakoan egunero 8 ordu lan egin beharra dago guztien eta ez kalean ibili liskarrak sortzen. Hemengo bizimoduak bere alde onak eta txarrak ditu, lanera datozenak gustura hartuko ditugu baina lanik egin nahi ez dutenak gera daitezela beraien herrian.

NI ▶

## ARGAZKI ZAHARRA ▶



## Tolosako Iruña Banda 1932an

Joxemi Saizar ▶ Santa Zezilia musikarien zaindaria ospatzen den honetan, Tolosako Iruña Bandaren argazkia dakargu, 1932koa. Hauek dira identifikatu ditugunak: 1-Astarloa (aita), 2-Kortadi, 3-Cipriano, 4-Juan Garmendia, 5-Roman Tolosa, 7-Anselmo Barrientos, 8-Pepito Valmaseda, 9-Ormazabal, 10-Astarloa (semea), 11-Antonio Crespillo, 12-Val-

maseda (semea), 14-Lirio Diez, 15-Martinez, 16-Tadeo, 17-Goibururu, 18-Tadeo, 20-Legarra (aita, atrileroa), 21-Florentino Peñafiel, 22-Miguel Martinez, 23-Legarra (semea), 24-Rafael Esnaola, 25-Remigio Garate, 26-Maximo Oses (Iruña kafetegiko jabea), 27-Manuel Valmaseda (zuzendaria), 30-Iza, 31-Peñafiel, 32-Amoña, 34-Etxeberria. LIRIO DIEZEK UTZITAKO ARGAZKIA



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

IRITZIA ▶ INAZIO AGIRRE (BATASUNeko KIDEA)

Zortzi hilabete su-etenaren ondoren prozesua blokeatuta dago. Alde anitzeko elkarrizketa politikoa ez da hasi. Batasuna legez kanporatua, ez-ker abertzalea erasotua, jazarpen judiciala... Prozesua aurrera ateratzea alde guztien lana da, baina horretarako hiru gauza behar dira. Bat, elkarren errespetua; alde guztiek jarduera politikorako berdintasunezko baldintzak izatea. Bi, konpromisoak hartzea; gutxieneko adostasuna lortzeko, elkarrizketa abiatzeko eta gatazka politikoa gainditzeko. Hiru, bukaerako akordioak aukera politikoz guztiak gauzatzera ahalbidetu behar du. Euskal Herriaren independentzia, sozialismoa eta euskalduntasuna barne, euskaldunek libreki eta demokratikoki hala erabakitzen baldin badute.

Etorbizuneko egoeran aukera politikoz guztiak gauzagarri izan daitezke biko-pilo nagusi askatu behar dira orain: Euskal Herriaren lurraldetasuna eta autodeterminazioa. Gatazkaren iturburua dirrelako. Eta autodeterminazioa ez da independentzia, aukera guztien artean hautatzeko eskubidea baizik. Ez da inposamena, ez da baztertzaila, ez da abertzalea. Demokrazia da. Pertsona guztiak, egitasmo politikoz guztiak eta lurralde guztiak barne hartzen dituelako. Guztiek eskubide eta baldintza berekin. Ahalbide ematen dio herritar bakoitzari aukera ezberdinen artean erabakitze. Integraztzailea, irekia eta alde askotari-

koa da. Eskubide indibidualak eta kolektiboak uztartzen ditu. Aurretiazko baldintza eta bermea da gainerako oinarriko eskubideak errespetatzeko eta gozatzeko: ekonomikoak, sozialak, kulturazkoak eta hizkuntzazkoak. Horregatik uste dugu autodeterminazioa konponbiderako gako dela.

Autodeterminazioa herri guztien oinarriko eskubide demokratiko unibertsala da. Nazio Batuen Erakundearen batzar nagusiak 1966ko abenduaren 16an, onartu zituen Nazioarteko bi Itunetan —Eskubide Zibil eta Politikoa eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalena— lehendabiziko artikulua jasotzen du autodeterminazio eskubidea. «Herri guztiek dute aske erabakitze eskubidea. Eskubide honen bidez libreki ezartzen dute beren kondizio politikoa eta hornitzen dute halaber beren garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala». Hortaz, Euskal Herriaren autodeterminazioa aitortzea ez da prezio politikoa ordaintzea, eskubide unibertsal bat gauzatzeko baizik. Estatu espainiarrak eta frantziarrak estatu ez demokratikok dira oinarriko eskubide hori Euskal Herriari ukatu egiten diotelako. Eta eskubide hori ez errespetatzeak gatazka politikoa eta armatua elikatzen du.

## Denok irabazian

Europak autodeterminazioa aitortzen du: Txekiak, Eslovakiak, Esloveniak, Kroaziak, Lituaniak, Letoniak eta Estoniak autodeterminazio eskubideak erabiliz independentzia prozesuak gauzatu dituzte, azken urte hauetan. Azkenekoa, aurten bertan, Montenegro izan da. Amerikak ere, herriek bere etorkizuna erabakitze eskubidea dutela ulertzen du. Hor da Quebeceko adibidea Kanadan. Beraz, Euskal Herriaren autodeterminazioa ukatzeko PSOEko diena gezurra da. Eskubide hori ez da bakarrik kolonia diren herrientzat, zapalduta daudenentzat edo erakundeetan ordekaritza ez dutenentzat. Eta autodeterminazioaren jardura ezin da ohiko hauteskundeekin nahastu, Lopezek egin nahi duen bezala. Aipatutako autodeterminazio prozesu guzti horiek ez dute zerikusirik herri horietan bertan burutzen diren hauteskunde orokorrekin edo munitzipalekin.

Euskal Herrian, inkesten arabera, 10etik 8 dago autodeterminazio eskubidearen alde. Horiek horrela, Euskal Herriko herritar guztiok dugu eskubide besterenezina, bai Euskal Herriko lurraldeen arteko barne artikulazioa antolatzeko, bai Euskal Herriak Espainiarekin eta Frantziarekin izango dituen harre-

man mota erabakitze. Eta ekuazioa ez da lorpen politikoa bakearen truk. Espainiak eta Frantziak Euskal Herriaren eskubideak errespetatzea baizik. Euskal Herriaren demokrazia errespetatzea eta beren etorkizunari buruz euskal herritarrek aske eta demokratikoki erabakitzen dutena bi estatu horiek errespetatzea.

Prozesua desblokeatzeko jarrai dezagun konponbidea eraikitzen, atzera egin ez dezan proposamenak egiten, jarre-rrak hurbiltzen, konpromisoak hartzen, gutxieneko adostasun nahikoa lortzen, alderdien arteko elkarrizketa politikoa abian jartzeko. Batasunak borondatea du prozesua azkenbururaino eramateko. PSOEko jaun-andreak: Euskal Herriaren nazio izaera aitortzea, ez eragotzi bere hitza eta errespetatzea ezazue bere erabakia. EAJko andra-gizonak: Euskal Herriaren autodeterminazioa eta lurraldetasuna bultzatzea, ez mugatu eskubide horiek hogeita hamar urteko zatiketa eta indarkeria ekarri dituzten Foru Hobekuntza eta Autonomia Estatu-tutara.

Guztion artean, inor baztertu gabe, konponbidearen jokaleku demokratikoa eraiki dezagun, irabazlerik eta galtzailerik gabe, justiziako bake egonkorra eta iraunkorra gauzatzeko Euskal Herrian. Prozesutik denok irabazle ateratzeko. Euskal Herria eta euskal herritar guztiok irabazian atera gaitzen.

IRITZIA ▶ OIHANA LOPETEGI (TOLOSALDEKO BILGUNE FEMINISTA)

## Indarkeri sexistari aurre!

Azaroaren 25a, emakumeon aurkako indarkeriaren nazioarteko eguna urtero legez iritsi zaigu, hotzikara emateko datuekin, eta geure buruari zer pasatzen den galdetuko diogu, ea mundua erotu den. Baina emakumeok jasaten ditugun eraso guztiak ondo programaturiko sistema patriarkalaren ondorio zuzenak dira. Gaur egun jendartearen sexuen arteko botere harremanek bizirik dira eta egunero normaltasun osoz, gauzak berez horrela balira bezela bizitzen dugu diskriminazio egoera hau, konziente izan gabe.

Indarkeria sexistara arazo sozial bat da, neurri handiago ala txikiagoan emakume guztiei eragiten diena. Urrutira joan gabe, Zizurkilan bertan lehengo astearen eraso bat izan genuen. Arazo hau konpontzeko, benetako erantzun soziala eta sexuen arteko botere harremanen iraultza behar ditugu. Horregatik, ez dezagun gaia arazo isolatu eta emakume batzuei bakarrik eragiten diena bezala tratatu, herriaren erantzuna beharrezkoa da. Erasotzaile eta hiltzailek ez dute lekurik jendartearen, beren jarrekarak dirauen bitartean, argi izan behar dute ez direla onartuak izango ez katean, ez lanean ezta egunerokotasunean egoten den edozein espaziotan ere. Bazterketa soziala, erasotzaileen portaera onartzen ez dugula azaleratzeko jendarteak aplikatu beharreko urgentziako mekanismoa da, hau da, guztien ardura. Ulertarazi behar zaie honelako pertsonak ez dutela tokirik jendarte parekide baten izenean mintzo bagara.

Emakume erasotuek jasotzen beharreko atentzioari eta prebentzioari dagokionez, instituzioek ez dute asko aurreratu azken bost urteotan. Eraiketa eta erasoaren zifrak goraka doaz, momenturo meto-

do eta droga berriak asmatzen dira emakumeon gogo eta indarrak ezetzatzeko. Bitartean, instituzioetatik eraginkortasunik gabeko lege eta komisioak sortu besterik ez da egiten; beteaztereko aurrekonturik gabeko legeak eta erabaki ahalmenik gabeko komisioak. Hau al da instituzioetatik burutzeko asmoa duzuen aurrerapauso bakarra? Ez da kanpaina polit eta antzuak egiteko garaia, zuten lana ez da protesta ekintzak egitea. Azaroaren 25aren inguruan aurpegia garbitu eta bozkak lortzeko, soluziobideak jartzeko baizik. Logikoa iruditzen al zaizue Euskal Herriko Mugimendu Feministak manifestazioa antolatutako ordu berean udalak konzentrazio propioa egitea?

Behingoz eta betirako emakumeon kontrako indarkeriarekin amaituko duten neurri eraginkor-rrak behar ditugu instituzioetatik. Neurriok nahitaez prebentziotik abiatu behar dute, oraindik ez baita neurririk zehazten ari jendartearen erasotzaile gehiago egon ez daitezke eta daudenak jarrera egokietara bideratu eta izateari utzi diezaioten. Hezkuntzak oraindik ez dio erantzun egokirik eman gaiari eta hau baieztatuzko erasotzaileen adin gero eta baxuagoari begiratu bestetik ez dago. Emakumeok neurri errealean zain denbora luze daramagu eta instituzioetatik hauteskunde usaineko promesa merke eta antzuak jaso besterik ez dugu egiten. Autodefentsa eta salaketaren garaia heldu da, emakumeok gure bizitzaren jabe-goa duintasunez berreskuratzeko beharra dugu hemen eta orain. Erasoaren aurkako sareak sortu, gure burua kemenez hornitu eta aski dela argi eta ozen esateko ordua da, besteek guregatik egingo dutenaren zain egon beharrean.

IRITZIA ▶ OLATZ PEON (TOLOSako ALKATEORDEA)

## Azaroaren 25a

Gure gaurko gizarteak egun asko izaten ditu eta azaroaren 25a emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako eguna da, hain zuzen ere. Tolosako Udaleko kargu publikoa naizen aldetik, derrigorrezkoa irudituz aipamen bat egitea. Genero indarkeria, emakumeen duintasunen aurkako eraso zuzena da eta, ondorioz, giza eskubideen bortxaketa larria, azken batean emakumeek bizi duten desberdintasun egoeraren isla.

Egoera hau gainditzeko aukera bakarra emakume eta gizonen arteko berdintasunezko politikak bultzatzea da. Udaleko Gobernu Batzarrak onartutako idatzian adierazten den bezala, aukera berdintasunak bermatzearen.

Gizarteak esparru guztietan presente eduki behar dugun gaia da hau, etengabe piztuta mantentzen den argi gorri baten moduan. Genero indarkeriaren giza eskubidearen bortxaketa honek ez ditu kulturak, ez ideologiak, ez koloreak ezta lehen, bigarren edo hirugarren

munduko gizarteak ere. Genero indarkeriarekin zerikusia duten gertaera bortitzek etengabe eta maiz gaurkotasunezko orrialdeak betetzen dituzte.

Era berean, erantzun instituzionala sendoa eta tinkoa izan dadin, instituzio ezberdinen arteko koordinazioa derrigorrezkoa da, gizartearen inplikazio ezinbestekoa den bezalaxe, emakumeenganako indarkeriaren aurkako erantzuna sendoa eta erabatekoa izan dadin.

Datu adierazgarri bezala, Europar Batasunean bost emakumetatik batek tratatu txarrak jasan ditu inoiz. Tolosako udalerrira mugatuz gero, 2006. urtean, 7 kasu izan dira, nahiz eta 4k bakarrik salatuta.

Datuak hain kezkarriak izanik, eta Udala herritarren gaitik hurbilen dagoen administrazio publikoa denez, egun honetan Udalak emakumezkoen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta erradikazioan duen paper garrantzitsua bere gain hartzen du eta gizarteko gaitz hau amaiaztereko asmo tinkoa berretsi.

TITIRIJAI 2006 ▶

# Zabalik da fantasiaren mundua

Kubako El Mejunje eta Madrilgo La Mar de Marionetas taldeek ireki dute 24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia

## MADDI SOROA

**F**antasiaren mundua zabalik da jada. Era guztietako pertsonaiek, ahotsek, koloreek, abestiek, baina batez ere, istorioek, Tolosako hainbat topagunetara egingo dute bidaia. Leidor Antzokia, Kultur Etxea, Casinoa edota Ferialekua, besteak beste, izango dira fantasiari ongiatorria emango dioten eraikinak.

Kubako El Mejunje taldea izan zen atzokoan 24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiari hasiera eman zion titiritero taldea; *Cuca Martina (La ratita presumida)* antzezlan eskaini baitzuen, 11:30ean, Ibarako Kultur Etxean lehenik, eta 17:30ean Tolosako Kultur Etxean gero. Etxean bakarrik bizi den labezomorro baten istorioa da honakoa. Cucak ez du bakarrik bizi nahi, horregatik, mota guztietako animaliak gerturatzeko eskatuz. Umorea eta maitasuna batzen dituen antzezlan musikatu da.

Fantasiaren mundua zabalitzen bigarrena, Madrilgo La Mar de Marionetas taldea izan zen. 20:00etan Leidor Antzokian estreinatu zen lanak, guztiz bestelako edukia izan zuen, *Orfeo y Euridice* antzezlanean mitologia izan baitzen nagusi. Greziarako mitologiara bidaia eginez, musika eta poesiaren doainak dituen Orfeo eta Traziako Euridice ninfaren arteko maitasun istorioa kontatzen baita orkestra batek zuzenean lagunduta.

Gaur, Bulgaria eta Portugalgo bi talde ariko dira Euskal Herriko beste bi talderekin batera magiaz beteriko istorioak publiko zabalari helarazten.

## EGITARAUA ▶

## GAUR

**Leidor.** *Pulgarcita* lana Bulgariako Varna P. Theatre taldearen eskutik, 17:30ean.

**Casino.** Bonecos de Sto. Aleixo talde portugaldarrak *Auto de la creacion* lana aurkeztuko du bi saiotan, 18:30ean eta 20:00etan.

**Kultur Etxea.** Behi Bis talde euskaldunaren *Rosi Erosi* lana ikusgai 12:00etan.

**Hirukide (Jesusen Alaba).** Euskadiko Teatro Paraiso taldeak *En el jardin* lana eskainiko du hiru urte bitarteko haurrentzat 16:00etan eta 17:30ean.



El Mejunje talde kubatarraren *Cuca Martina (La ratita presumida)*. M.S.



Madrilgo La Mar de Marionetas taldearen *Orfeo y Euridice*. HITZA

PILAR LOPEZ ▶ TEATRO PARAISO TALDEKO KIDEA

«Haurrek mundua ikusteko duten moduari kasu egin behar genioke»



Euskal Herriko Teatro Paraisoren *En el jardin* laneko une bat. HITZA

Teatro Paraiso talde euskalduneko kidea da Pilar Lopez. Gaur eta bihar, 0-3 urte bitarteko haurrentzako *En el jardin* antzezlan berezia eskainiko du 11:00etan, Hirukiden.

**Nondik sortu zen 0-3 urte bitarteko haurrentzako lanak egiteko ideia?**

0-3 bitarteko haurren mundua, esploratzeko oso interesgarria eta iradokitzailea dela ohartu ginen. Haur txikiek artearekiko sekulako harremana eta konzentrazio ahalmena dute. Helduok ez bezala, oso potentzia dute sorpresazko eta emoziozko gaitasun sentsoriala. Horregatik, desio handia genuen haur txikiekin komunikatzeko. Gaur egungo gizartean haur txikiek uneoro irudiak dituzte aurrez-aurre eta guk inbestigazio lana egin nahi genuen haur eta irudien arteko harreman hori ezagutzeko.

**Zertan ezberdintzen dira 0-3 bitartekoentzako saioak?**

Adin ezberdintasunak baldintza zehatz batzuk exijitzen ditu: iraupena, gertutasuna eta intimitatea, esaterako. Publiko mu-

rritza izaten dugu, lasai eta seguru senti daitezen.

**Zer aurkituko du *En el jardin* ikustera doanak?**

Lorategi baten bitartez egiten den bidea da, gizonezko batek pareta zuri batean era guztietako irudiak deskubritzeko gonbitea egiten duelarik. Iru-dian oinarritzen den lana da eta ukimenak edota musikak garrantzi handia hartzen dute. Ez dauka estruktura tradizionalik; guk, emozioen segidari ematen diogu garrantzia.

**Haur txikiak, edukia barnartzeko gai direla uste duzu?**

Haur txikiek artearekiko sekulako gertutasuna eta konzentrazio ahalmena dute. Plazer eta emozio handia sentitzen dute irudien bitartez.

**Polita izan behar du haurrentzako antzezteak, ezta?**

Guretzako sekulako plazerra da disfrutatut egiten dutela ikustea. Haurrek mundua begiratzeko duten moduari kasu egin beharko genioke. Artea begiratzeko benetako purutasuna dute, helduoi, ordea, ahaztu egin zaigu hori. ◀



# FOTO

# depilazioa

5 sesiotako bonoa erosi ezkeror  
Afterlaserra lortuko duzu

**DOAN**

Baliozko promozioa  
azaroaren 21etik  
abenduen 3arte

140€

55€

85€

**Shuyana Edergintza** • Tel.: 943 67 54 89 • Eskolapioetako Lorategiak, 3 - 1A • TOLOSA

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA ▶

# Genero indarkeriari stop

Bilgune Feministak eta Udalak tratu txarrak salatu zituzten atzo; ekitaldi gehiago izango dira hurrengo astean

**ENERITZ MAIZ**

Atzo, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna zela eta, Bilgune Feministak, eguardian elkarretaratzea deitua zuen Triangulo plazan. Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, trikiti doinuak lagun, ordu erdiz egon ziren *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartu* zioen pankartaren atzean bilduta. Emakumeak gehiago baziren ere, gizezko batzuk inguratu ziren elkarretaratzera. Bukarea emateko, testu bat irakurri zuten Bilgune Feministakoek; emakumeek jasaten dituzten egoerak salatu eta berdintasunera iristeko eman beharreko pausoak denonak direla azpimarratuz.

Bestetik, Tolosako Udalak antolatuta, arratsaldean udal-txe aurrean elkartu ziren hainbat herritar, eta ondoren Tik Tak antzerki taldeak eginiko *Ez nazazu jo* antzezlan laburra izan zen ikusgai.

Leitzako Gaztetxean, bestalde, emakumeenganako indar-

keriaren aurkako proiektzioa eta *Te doy mis ojos* filma ikusi zituzten, ondoren, kafe tertulia egin zuten; Villabonan ere hainbat herritar bildu ziren Urdapilleta etxearen aurrean egin zuten konzentrazioan.

**Datorren astean**

Hilaren 30erako eta Abenduaren 1erako, Irura eta Anoetako Udalek, ekimen ezberdinak antolatu dituzte Anoetako ikastolan. Ostegunean, *Nola kontatu ipuin ez sexistak umeei*, tailer praktikoa egingo dute eta ostiralean, *Emakumeak eta beren autonomia: sentsazioak eta sentimenduak* gaiaren inguruko zine-foruma egingo dute. Bukatzeko, abenduaren 11, 13, 18 eta 20rako ikastaroa antolatu dute. Bi orduko saioak izango dira arratsaldez eta *Trebetasun sozialak: aldaketak eta erronka emakumeen bizitzan* izango dute gaiatzat. Izen ematea, bost euroren truke, abenduaren 4a baino lehen egin beharko da Anoeta edo Irurako Udaletxeetan.



Bilgune Feministakoek Triangulo plazan deitutako elkarretaratzea. ENERITZ MAIZ



*Ez nazazu jo* antzezlanaren aurkezpena zuten atzo. E. MAIZ

**BERRIaren upeletik ardo aparta**

**REMELLURI 2001. urteko ERRESERBAko ardoa**

*Zuretzat edo nahi duzunari oparitzeko!*

Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura: - Zure etxera.  
- Oparitu nahi diozun lagunaren etxera edo lantokira..

3 BOTILAKO KUTXA 6 BOTILAKO KUTXA

39 € 78 €

ESKAERA EPEA: **azaroaren 27a arte**  
ESKAERAK EGITEKO: **943 30 43 45**  
BIDALKETA GASTURIK GABE

Poliki-poliki eta modu naturalean egindako ardoa, haritzik onena erabiltza; azken batean, benetako chateau ardoa, zapore fresko eta iraunkorreak, bouquet handi eta oparokoa.

aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

**'ZURE UMEEN DENDA'**

sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak  
zakuak • maindireak • ohe estalkiak

BUGABOO • BEBECONFORT • QUINNY • INGLESINA  
BEBECAR • JANE • MAXI-COSI • CASUALPLAY • STOKKE

San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

POLITIKA ▶

# Autodeterminazioaren aldeko ekitaldiak egin dituzte Tolosaldeko hiru herrietan

Anoetan, Villabonan eta Tolosan txalapartari, bertsolari, trikitilari, bazkari, kontzertu, hitzaldi eta estropaden bitartez ospatu zuten atzoko eguna

NAIARA GARZIA

Anoeta, Villabona eta Tolosan autodeterminazioaren inguruko hainbat ekitaldi egin zituzten atzo egun guztian zehar. «Euskal Herriak bere egitura-tze eta ordezkari-tza instituzionala erabaki eta gauzatzeko eskubidea» eta «euskaldunek bere naziotasuna izateko duten eskubidea» aldarrikatzea zuten helburu ekitaldi hauek.

Anoeta izan zen atzo ekitaldi gehien antolatu zituen herria. Bertan, 10:00etatik 13:00etara udaletxean EHNA egiteko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek. Gero horma-irudi bat marraztu zuten «Euskal Herriak autodeterminazioa» leloarekin. 13:00etan, berriz, ekitaldia egin zuten, txalapartari eta dantzariekin, agurra eta fandangoa dantzatzuz. «Euskal Herriaren nazioa aitortza, autodeterminazioa eta lurraldetasuna ardatz izango dituen prozesua» helburu zuela azaltzen zuten idatzia ere irakurri zuten, EHNAren tramitazioaren aurrean jendearengatik jasotako erantzuna eskertuz, jada 200 baitira pausu hori eman duten anoetarrak. Hau dela eta, 13:30etan EHNA tramitatu du tenek argazkia atera zuten.

14:00etan bertso bazkaria ospatu zuten Kuku elkartearen,



Estropadekin hasi zen Tolosako autodeterminazioaren aldeko azken eguna. N. GARZIA



EHNA tramitatu dutenak Anoetan. N. GARZIA



Txalapartariak Villabonako zineman. N. GARZIA

Jexux Mari Irazu eta Amaia Agirre bertsolariak ere bertan izan ziren. 18:00etan kalejira atera zen plazatik, ondoren triki poteoa egin zuten, eta autodeterminazioaren aldeko egu-

na amaitzeko, Une eta Potemkin taldeek kontzertu bana eskaini zuten gaztetxean 23:00etan.

Villabonan arratsaldean hasi ziren autodeterminazioaren aldeko ekitaldiak, 18:00etan, txalapartari, bertsolari dantzari, eta abarrekin. Autodeterminazioaren aldeko DVDa ere salgai jarri zuten eta Irati Odriozolak eta Josune Arretzek hitzaldia eskaini zuten. Hitzaldia amaitu ondoren

ekitaldiek Berdura plazan jarraitu zuten, gaztain jatea egin baitzuten trikitilariekin.

Tolosan, berriz, azaroaren 10ean egindako prentsaurrekoarekin hasi ziren autodeterminazioaren aldeko ekitaldiak, eta hauekin amaitzeko estropadak izan ziren Oria ibaian, bertsolarien bertsoak botatzen zituzten bitartean. Eta gero trikitixa eta dultzaineroen laguntzarekin, Tolosako kaleak alaitu zituzten.

AZOKA ▶

## Animazio handia azokan euria egin arren

Perretxiko zerrenda, nahiz eta zertxobait gutxitu, oraindik oso zabala da

PABLO ALBERDI

Atzoko eguraldi beroak jendea kalera irtetera bultzatu zuen, eta goizeko lehenengo orduetatik izan ziren erosleak azokan. Eguerdi aldera euria hasi zuen, eta giroa zertxobait freskatu ere, baina halere giroa alai mantendu zen azokan.

Eskaintza aldetik ere animazio handia izan zen. Produktu dexente ikusi genuen mahaletan, ia gehiena udazkenekoa dagoeneko. Fruta asko, errezil sagarrak, mizpiradiak, kiwiak eta fruitu lehorrak, barazki zerrenda oso zabala; azak, azaloreak, bruselazak, romanesku azak, eskarolak, letxuk, porruk, azenariok edo eta tipulak beste-en artean.

Perretxiko zerrenda, nahiz eta zertxobait gutxitu, oraindik oso zabala da, eta atzo onddoak, ziza horiak, gibelurdinak, mendiko angular eta nikaloak izan ziren salgai betiko prezioetan. Ehiza zerrendan usoa eta eperrak izan ziren.

AZOKA ▶

Prezioa	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Ziklamena	5,50	-
Txinar krabelina	2,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak		
Erremolaba	1,50	2,00
Porrua	1,00	2,00
Txikoria	1,00	-
Azalorea	1,00	-
Tolosako babar.	8,00	12,00
Lekak	2,50	3,50
Ziza horia	16,00	-
Onddoak	10,00	26,00
Errezil sagarra	2,00	-
Mizpiradia	3,00	-

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Arroza	1,90	2,00
Dilistak	2,40	-
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Arraultzak	3,50	-
Mermelada	3,00	3,60

**OLATZINMO**  
UNIBERTSITARIA

**IBARRA:** 3 logela. Berogailua. Egoera onean. 36.000.000 pztz.

**TOLOSA:** 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pztz.

**TOLOSA:** Zumalakarregi. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 bainugela. Erabat berrituta. Sukaldea jarrita. 65.000.000 pztz.

**VILLABONA:** Eraikitua berrikoa. 49.900.00 pztz.

**VILLABONA:** Arroa. Pisu altua. Berritua. Ganbara badu. 47.500.00 pztz.

**VILLABONA:** Berogailua eta igogailua ditu. 43.000.00 pztz.

**VILLABONA:** 3 logela. Erdi eraberritua. 41.200.000 pztz.

**VILLABONA:** Etebebizitza eraberritua. Altzariz hornitua. 40.000.000 pztz.

**VILLABONA:** 2 logela. Hormigoiez eraikia. Terraza. 36.000.000 pztz.

**ZIZURKIL:** Ertzeko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.

**ZIZURKIL:** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trasteleku. Terraza ederra. Ilogailua. 41.500.000 pztz.

**Errota 3 - Villabona**  
Olatzinmo@euskalnet.net  
943 243 118 - 635 706 728

### iragarki laburrak ▶

#### SALGAI

**Autoa.** Ford Escort 1800. 16V. 9 urte. Egoera ezinhobean. Deitu zenbaki honetara: 687 22 57 07

### BANAKETA ENPRESA batek banatzaileak behar ditu, Tolosaldean.

#### Lan-baldintzak:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan eta bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

#### Ezinbestekoa da autoa izatea

Astelehena, azaroak 27, deitu telefono honetara  
943 30 43 41



INAZIO GAZTAÑAGA ▶ BANDO NAZIONALEAN ARITUA

# «Espainia guztia pasatu nuen oinez, kilometro asko, fronte batetik bestera»

Lau aldiz zauritu zuten Gerra Zibilean Leitzan bizi den berastegierra; orain ez litzateke joango

JOXEMI SAIZAR

Soldaduska Gerra Zibilean, alde nazionalen, egitea egokitu zitzaion Inazio Gaztañaga Sagastibeltzari (Berastegi 1916), bere ideien aurka «hala behartuta». 1937an hasi eta gerra amaitu ondoren urte batzuk pasatu arte iraun zuen bere soldaduskak. Abertzale eta euskaltzale hau Leitzan bizi da ezkondu zenetik.

## Zer gogorazten duzu haurtzaroaz?

Aita, Santos, berastegierra zen eta ama, Joakina, leitzarra. Zazpi senide ginen, bi ama desberdinenak. Berastegin bizi ginen eta Errepublikara garaia zen. Ongi moldatzen ginen. Mendiko baserriko batekoa nintzen eta ez nintzen sartu ere egin eskolan. Herritik urrutu bizi ginen. Plazaolan hasi nintzen lanean, zentral batean. Han ikasi nuen irakurtzen, gerraren ondoren, batekin eta bestekin.

## Eta gerraren hasiera?

Berastegin Nafarroatik sartu ziren erreketek. Asko ziren. Urton tiroketa izan zen. Herritik entzun genuen. Mikeleteak ziren han eta bost hil zituzten. Azpeitiar batek alde egin zuen mendiz mendi Ollokira eta gure anaiak eta gure etxera eraman, garbitu, jana eman eta han gelditu zen. Hurrengo egunean Andoainera joan zen. Beste aldeko inor ez zen hil tiroketa hartan. Beldurra ikaragarria zegoen.

## Noiz deitu zintuzten soldaduskara?

1937an. Martxoaren 7an Donostiara joan nintzen koartelera, 11n Arrasatera batailoi batera, lubakietara, erreketek zeuden han, eta handik Bizkai-ko aurrerapena hasi zen. Toribio Egimendia eta koadrilatxoa joan ginen Berastegitik. Ibarrako Alberto Agirre nuen laguna eta gerran hil zen. Ikusi nuen bigarren hildakoa izan zen. Infanteria ginen, oinez genbiltzan fusilarekin. Tiro asko egin dut. Bilboraino eta aurrerago ere iritsi ginen, Santandereraino. Bizkargi mendi famatua bazen eta han zauritu egin nintzen eta Gasteizko Samaniego ospitalera eraman



JOXEMI SAIZAR

ninduten, buruan zauria nuela. Hilabete pare bat pasatu nituen ospitalean. Diferentzia ederra han! Santanderren eta Iruñea aldean ere ibili ginen Madril aldera joan aurretik.

## Beraz, asko ibili zineten.

Espainia guztia korritu genuen oinez, kilometro asko: Asturias, Soria, Teruel... Orduan bai saioi ederrea oraingo parte! Tolosarrak ere baziren tartean, Ordoki abizeneko bat, besteak beste. 1937ko Urte Zahar egunean joan ginen Teruelera eta hotza ikaragarria egiten zuen. Errege egunean berriz ere zauritu nintzen, tankearekin. Teniente donostiara eta beste bost hildako izan ziren. Ni bakarrik gelditu nintzen zauritua gaizki eta Legorretako beste bat ondo. Burgoseko Oña ospital handira eraman eta hiru hilabete egin nituen han. Handik berriz ere Teruelgo frontera. Denbora asko egin genuen gero. Gero Ebroko fronte handira joan ginen. Hegazkinak eta

baizeuden. Gorriek gutxi zituzten eta guk onak, alemanak. Berak gaiztoak omen dira, baina hegazkin onak zituzten alemanek. Han berriz zauritu, eta ospitalera eraman ninduten Gasteizera. Balak izan ziren oraingoan, belaunean zuloa egin zidaten. Denbora asko pasatu nuen bertan, hiru bat hilabete. Sendatu eta berriz ere frontera. Castello aldera joan ginen, Sierra Espadan, Valentziara joateko bidean. Han laugarren aldiz zauritu ninduten. Alde gustura egiten genuen frontetik. Valentziara ez ginen sartu eta Madril hartu behar genuen. Toledotik joan ginen, baina gerra bukatu zela eta ezin hartu. Apirilean izango zen hori, 1939an.

## Zein zen zuen batailoi?

Navarra 1. Dibisioa, gaiztoena. Euskaldun asko ziren: Tolosa inguruak, Berastegi, Txarama, Legorreta, Zegama, Txarama, Ibarroko Nicolas Ezkurra... Altzoko Faustino Pagola, nire

eskoadroikoa zen, mutil jatorra. Suertea izan nuen, zaurituta eta denbora asko pasatu nuelako ospitalean. Batzuk joan ziren betirako. Ikaragarriko bajak izan ziren.

## Beste bandokoekin trataturik ba al zenuten?

Asturiasen izan ginen, mendi batean eta beste aldean euskaldunak zeuden gorriekin. Gaez hitz egiten genuen, euskaraz aditzen genien. Eta haie-tako bat, hernaniarra, topatu dut geroztik Tolosan medikura joan nintzen batean. Zain geundela hizketan hasi eta Asturiasen gorriekin izan zela esan zidan eta gaez kantari eta gurekin hizketan egiten zutela. Batailoi komunista batekoa zen, Illarramendia edo horrelako zerbait.

## Goserik pasatu al zenuten?

Ez. Egardia bai, urik ez zen, baina ardoa nahikoa beti. Ebron geundela, bodega ikaragarriak zeuden. Batean, ardoaren zuloan, *moro* bat hilda zegoen. Legionarioek hil zutela esaten zuten. Badakizu nolakoak ziren. Francoren aldeko *moro* asko izan ziren gerran borrokan. Egunez ezin genuen joan ardo bila, gorriak zeudelako tiroka, baina gaez bai, joaten ginen. *Moroa* apartatu eta kate batetik zintzilik zegoen balde batekin hartzen genuen ardoa. Ze ardo ona, hi!

## Gerra ondoren zer gertatu zen?

Bakoitza tokatzen zitzaion lekura joan zen, soldaduska bukatzera. Ni Bilbora, Basurtora. Denbora gutxi egin genuen. Handik Ciudad Realera bidali ninduten, Solana herrira. Han denbora asko egin nuen. Ondo egin ginen. Goserik ez genuen izan. Aurretik, gerran, egun batzuetan bai, arrantxoa ez zen ona. Kaboa nintzen eta kategori gehiago izatea eskaini ziguten, baina ez genuen nahi izan.

## Noiz itzuli zinen etxera?

1940ean edo 1941ean bukatu-ko nuen soldaduska.

## Itstilurik izan al zen Berastegian?

Ez. Beste aldekoak kartzelara eraman zituzten. Berastegin bi, Errekalde eta Ospital, abertzaleak ziren. Bilbo hartutakoa libratu eta ez zituzten zigortu. Asko Frantziara joaten ziren, Iparraldea baino aurrerago. Zentraleko lagun bat ere joan zen. Ezkaban egon zen kartzelero eta presoekin alde egin zuen. Naziak sartu ziren gero Frantzian eta handik ere alde egin behar. Polonian preso hartu zuten eta etorri egin zen handik. Mikelete izandako lagun bat bagenuen zentrolean, eskola handikoa, eta hark egunkaria irakurri eta munduko gerra nola zihoan esplikatu zuten zigan.

## HEGAZKINAK

«Gorriek gutxi zituzten, guk onak, alemanak; gaiztoak omen dira, baina hegazkin onak zituzten»

## ZAURIKAK

«Suertea izan nuen, zaurituta denbora asko pasatu nuelako ospitalean; batzuk joan ziren betirako»

## GERRA

«Orain gerrara joan behar izan zen gero, ahal banu alde egingo nuke, baina orduan oso zaila zen»

## Gerra irabazitako desfile eta omenaldirik izan al zen?

Ez. Francorekin behin topatu nintzen, Teruelen, Muela mendian. Trintxeran nire ondoan pasatu zen. Gizon lodi bat, beltz-beltza. Bizkara ukitu zidan. Gerra ondoren urte askoan egon zen eta euskaldunak kontra geunden. Dimititu egin behar zuten, baina hil arte segitu egin zuten agintzen. Hilda gero ere seguraski jarraituko zuten agintzen.

## Orain gerrara joan behar izanez gero, zer egingo zenuke?

Ahal banu alde egingo nuke, baina orduan oso zaila zen. Iturango lagun bat, semeari Frantziara pasatzen lagundu ziola-ko atxilotu, Iruñera eraman eta fusilatuta egin zuten. Horrelako asko izan zen. Leitzan 16 fusilatu behar zituzten, apaizak eta alkateak eginda zerrenda, baina botikario bat etorri zen Iruñetik eta hark salbatu omen zituen. Beste batzuk diote Ignacio Baleztenak salbatu zituela. Leitzan inor ez zutela hilko esan-ge. Ez dakit.

## Fusilatuturik izan al zen zure herrian?

Bai, baina ez hasieran, gerran. Gaueko hamarretarako erretir-erango legea jarri zuten nazional-ek. Baten bat edukiarazi zuten beranduago arte eta orduan hil zuten, tranpa eginda.

## Zer iruditzen zaizu gerra?

Orain pentsatzen dut pakea behar dela, gerrarik ez. Munduko gauzarik onena da pakea. Miseria asko ikusi ditut, ikaragarriak. Ze hotzak eta ezagutu genituen! Denek galdu egiten dute gerran, handi batzuk bakarrik irabaziko zuten. Memoria ona omen nuen, baina orain gauza asko ahaztu zaizkit. Hobe ahaztea txarrak.



## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Baliarrain.** Kultur Astearen baitan, 14:00etan, Arkaiz elkarteak antolatuta, babarrun eta gaztain jatea egingo dute herritarren artean, Atari Soron.

**Orendain.** Udaletxeko Areto Nagusian, 12:30ean, *Transgenikoak gaitzat hartuta* hitzaldia eskainiko du Enrique Gisasolak.

**Tolosa.** Santa Zezilia musikaren zaindariaren omeneko kontzertua izango da gaur, Leidor aretoan, 11:30ean. Bost talde izango dira kontzertu berezi honetan: Giro arte dultzainari taldea, Maiatz akordeoi orkestra, Udala Txistulari Banda, Isidro Larrañaga akordeoi orkestra eta Tolosako Musika Banda.

**Ibarra.** Kultur Truke Hamabostaldiaren baitan, Kultur Etxean, Lur Korta ipuin kontalariaren eskutik Munduko ipuinen kontaketa saioa izango da bihar, 17:30ean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Ibarra.** Ugarte, MT. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

#### Bihar

**Areso.** Goizueta, F. Loidi Etxea, 112.  
**Tolosa.** Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Errekor berria Sellan

**TOLOSA** ▶ Sella ibaia 2 ordu eta 40 minutuko denboran zeharkatu zuen atzo Carlos Peña tolosarrak, berak lehenago ezarria zuen marka hautsiz

### ERREDAKZIOA

**E**rronka berri bat gainditu du Carlos Peña igerilari eta abenturazale tolosarrak. Oraingo honetan, Asturiasen (Espainia) dagoen Sella ibaia zeharkatu du, lehenago jarria zuen marka hautsiz.

Atzo, 08:20ean irten zen Peña Arriondas izeneko zubitik, eta

kostaldean, 19 kilometroko distantziara dagoen Ribadesella herrira 11:00etan iritsi zen. Beraz, 2 ordu eta 40 minutu behar izan zituen ibilbidea osatzeko, ohiko moduan, bizkarrez igeri eginez. Bere azken saiokeran, 3 ordu eta 50 minutu behar izan zituen ibilbide bera egiteko; atzokoan, baina, aise gainditu zuen denbora hori.

Ibilbidean bidelagun Jesus Remirez eta Iñigo Asensio izan zituen tolosarrak.

Argentinako Chiquita lakuan burutu duen erronka gainditu ondoren, «gogotsu» ekin zion abentura berriari. Hala, berak azaldu duenaren arabera, «Argentinarako neure burua dezente prestatu nuenez, oso ondo sentitzen nintzen, eta hori

asko nabaritu dut». Bestalde, azken egunetan egindako urriari lagundu duela ere azaldu du Peña: «ur emari handiagoa joateak abiadura handiagokoan joatea esan nahi du; gainera, uraren maila egokia zen, eta horrek ere lagundu dit».

Hainbat erronka gaindituak ditu tolosarrak; zein izango ote da hurrengoa?

### AGURRAK ▶



#### URTE ASKOAN

Iker eta Julen Esnaola (Belauntza). Bihar 3 urte eta abenduaren 5ean 5 urte. Familiaren partetik muxu handi bana.

Mesedez,  
ekarri argazkia  
bi egun  
lehenago.  
Mila esker.

**hitza**  
agurren  
tarte

Urtebetetzeak,  
urrezko ezteiak,  
ezkontzak,  
jaioberriak...



Carlos Peña (erdian), eta Iñigo Asensio (ezkerrean) eta Jesus Remirez (eskuinean) laguntzaileak, atzo, probaren ostean. I. ASENSIO

3 megako Banda Zabala



Deiak Telefono Finkoetara 24 Orduz  
hileko telefono-kuota barne



Proba ezazu etxean 3 hilabetez

hilean

1€

ordainduta\*

Eta, gainera, proba ezazu TB Digital Osoa hilean beste 10 € bakarrik ordaintuta.



San Francisco, 19  
Tolosa  
☎ 943698126